

HAUTAKETA ETA ITZULPENA

Irati Jimenez

# Aiztoa eta arkatza

Idazteari buruzko idazleen aholkuak  
(autolaguntza gida)

IRUDIAK

Antton Olariaga



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2013ko abuztua

© Txalapartak edizioarena  
© Irati Jimenezek hautaketa  
eta itzulpenarena  
© Antton Olariagak irudiena  
© Harkaitz Canok hitzaurrearena  
© Jose Mari Pastorek bere  
itzulpenarena

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
San Isidro, 35-1A  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

ISBN  
978-84-15313-62-5

LEGE GORDAILUA  
NA. 1218-2013

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
Graficas Lizarra  
Tafallako errepidea 1. Km.  
31132 Villatuerta - Nafarroa

txalaparta 

Hitzaurrea

Harkaitz Cano

HITZAURREAK SAIHESTEA AHOLKATZEN DIE Elmore Leonardek idazleei. Nik gauza bera aholkatuko nizuke zuri, irakurle: liburu mamitsu honen sorbalda samurrari zuzenean letaginak eranstea, aitzin-solasa bazter utzita.

Hor zaude oraindik?

Ongi, oso ongi dago hori. Agian desobedientzia literario-zibilaren aldeko bartlebytarra zara zu ere –«aukeran, nahiago ez»– eta irakurri egingo duzu, hala eta guztiz ere, hitzaurrea. Edozein esku-liburutako lehen araua horixe baita: «Ez men egin eskuliburuan agertzen diren arau guztiei». Nortasuna eduki beharra dago bide maiztuari uko egiteko. Hori da estreinako pausoa idazle ona izateko. Eta nork ez du idazle izan nahi? Beti esan izan da irakurle baino idazle gehiago dagoela gure artean. Ene liburutegiko uste apalean, zaila da bata izanez gero bestea ez izatea. Ez beltz eta ez zuri, ez *writer* eta ez *reader*, mutazioen garaian bizi baikara: *We're the world, we're the children, we're all wreaders...*

Ez idazle eta ez irakurle, beraz, *idazkurle* baizik; Gorka Bereziartuari zor diogu neologismoa.

Berezko jeneroa izan da betidanik idazteko aholkuena. Ematen den aholkuaren eta tonuaren arabera ikusiko dugu –*pour amuser, pour épater*– zein den idazlearen

aldarte, erresumin maila, harrokeriaren indizea. Hunkigarria, zinez, zenbaiten kasua: idazteko aholkuak eskatzen dizkiezu eta beren bizitza kontatzen dizute, hezur-dura sintetiko batean... Egiaz, nork bere aholku zerrenda egin beharko luke, nork bere dekalogo. Asko ikasten baita zeure buruari buruz, betetzeko gai izango ote zaren ez dakizun arau zerrendak egiten dituzunean. Baina kontuz, autopotreta bat egitea litzateke hori, eta zeure burua karikaturagilearen begi-puntu jartzea. Kontua da hori dela idazle bati *-idazkurla* bati?– gehien gustatzen zaiona, ala? Tiro-eremuaren alde bietan dagoela sentitzea. Tira-tzailea dela, eta tirokatua. Arkatza dela, eta aiztoa.

Hainbat garai eta estilotako idazle askoren iritzi eta aholkuak biltzen dira liburu gutziatsu eta gozagarri honetan, kontrajarriak zenbait, baina ez hainbeste. Oroz gain, ofizio baten aldarrikapena nagusitzen da; lanaren eta diziplinaren garrantzia da gehien errepikatzen den ideietako bat, musen gorteiuarekiko distantziak hartu nahi eszeptiko samar batekin batera (epaitegiei musentzat urruntze agindurik eskatzera iritsi gabe, hala ere). Maitasunez hitz egiten dute idazleek euren ofizioari buruz; trabak traba eta poseak pose, benetako idazle batek ez bailuke sekula berea beste ezein ofizioaren truk aldatuko. Buruhausteak buruhauste eta izerdiak izerdi, Paul Austerren hitzak gogoan beti: «Ez da idazteak berealdiko plazera ematen didanik, baina askoz okerragoa da idazten ez badut». Horrekin batera, beste ezer baino lehen, bizitzari bizkar ez emateko aholkua, letren meatzetik ateratako hitzek suren bat piztu eta esku hotzen bat epeltzeko balio beharko luketen konbentzimendua. «Ez torturatu irakurlea premiazkoa dena baino gehiago». Baikorra delako eta korrontearen kontra doalako, Augusto Monterrosoren baieztapena aukeratuko nuke, beharbada, irakurritako perla guztien artean: «Literaturan ezer ez dago idatzita».

Idazten duen jendea arraroa dela sinetsarazi zidaten aspaldi batean; *freak, nerd*, borondatezko autisten kontua zela idaztea. «*A mi clase ha venido uno nuevo, muy raro, que come hierba y además escribe*», entzun nion oharkabean nigatik ari zen ikaskide bati, erramu hosto bat ahoan eramateko ohitura nuen nerabezaro urrunean. Urteekin jabetu naiz guztiz bestelakoa dela kontua. Arraroagoa dela idazten ez duen jendea. Arrazoi gehiago dituztela kezkatzeko idazten ez dutenek. Idaztea dela normalena, eta ez alderantziz. Autopotreta egitekotan, estiloarekin egin behar da. Ofizioetan literarioena duen tren-makinistari bezala gertatuko zaizu, osterantzean: sare sozialetan arin eta zabar idatzitakoek zure patua zigilatuko dutela, eta fribolo ziren hitzak tragiko bilakatuko direla. Ez uste zeuri gerta ez dakizukeenik. Konta-teknikak menperatu ezean, zeure bizitza birrindu dezakete hitzek, argi ibili. Kontra-koa dirudien arren, gaur inoiz baino garrantzitsuagoa da Proust. Laprast egin ez dezagun.

*Le mot juste.*

Horregatik da liburu hau noranahikoa eta edonoren-tzakoa. Lanerako eta bizitzeko jarreraz ari delako. Idazteko estiloaz eta bizitza estiloaz. Literaturaz eta krimenaz. Banitateaz eta inbidiaz. Zeure bizitza hobeto –esan nahi baita exijentzia gehiagoz eta autoironia handiagoarekin– kontatzen ikasteaz.

Behingoz, lasai oihu egin dezakezu: autolaguntza liburu bat euskaraz, azkenik!

Den-denok garelako *idazkurle*. Den-denok aholku premian gauden amateur eternalak.

Laprast edo Proust.

Ezerk salbatzekotan, estiloak salbatuko gaitu.

HARKAITZ CANO. 2013-07-30

# John Steinbeck

John Ernst Steinbeck 1902an jaio zen, Salinasen, Kalifornian, alemaniar, irlandar eta ingeles jatorriko familiaren seme. Unibertsitatera joan arren, ez zuen graduarik lortu eta, idazle moduan bizimodua egiten saiatu zen bitartean, askotariko lanak izan zituen. 1935ean, kale gorrian bizi diren etxegabeei buruzko *Tortilla Flat* (*Tortilla Flat*) eleberriarekin lortu zituen lehen aldiz arrakasta komertziala zein kritikarien oniritzia. Orduetik aurrera ez zituen faltako: 1939an *The Grapes of Wrath* argitaratu zuen, xx. mendeko eleberri goraiatuenetakoa, «depresio handiaren» kronika bikaina eta urte hartako Pulitzer sariduna. Gero etorriko ziren *Of Mice and Men* (*Saguak eta gizonak*), *The Pearl* (*Perla*), *East of Eden* eta beste hainbat lan, hogeita zazpi eleberri osatzeraino, eta hainbat kronika ere bai, besteak beste, II. Mundu Gerrakoak edota Sobiet Batasunari buruzkoak (gerra ostean hara bidaiatu zuten amerikarretan lehenetakoa izan zen). Uzta nabarmen horri esker lortu zuen Literaturako Nobel saria, 1962an. Biriketako gaitzak jota hil zen handik gutxira, New Yorken, 1968an.

1975ean, *The Paris Review* aldizkariak Steinbecki egindako elkarrizketa argitaratu zuen, haren bizitzaren azkenetan egindakoa. Bertan, Steinbeckek idazleentzat ematen zituen aholkuak ageri ziren.

## John Steinbecken idazteko 6 aholkuak

1. Utzi alde batera noizbait bukatzearen ideia. Galdu bistatik 400 orrialde horiek eta idatzi orrialde bat egunero. Lagundu egiten du. Horrela, bukatuta duzunean beti harrituko zara.
2. Idatzi askatasunez eta ahal bezain azkar eta bota guztia paperera. Inoiz ez zuzendu edo berridatzi oso-osorik bukatu arte. Berridaztea aurrera ez jarraitzeko aitzakia izaten da. Eta interferentziak sortzen ditu jarioarekin eta erritmoarekin; horiek materialarekiko lotura inkontzientearekin baino ez daitezke etorri.
3. Ahaztu zure hartzaileak. Lehenik eta behin, izenik eta aurpegirik gabeko hartzaile horiek hezurretaraino izutuko zaituzte eta, bigarrenik, antzokian ez bezala, ez dira existitzen. Idazterakoan, zure hartzailea pertsona bakarra da. Batzuetan lagungarria izan zait pertsona bat hautatzea, benetako pertsona bat, edo asmatutako pertsona bat, eta harentzat idaztea.
4. Eszena batekin edo zatiren batekin ezin baduzu eta, hala ere, behar-beharrezkoa dela uste baduzu, utzi albo batera eta jarraitu. Osorik bukatzen duzunean itzul zaitzake eta orduan konturatuko zara, beharbada, arazoak eragitearen arrazoia zein zen: hura ez zen bere tokia.
5. Kontuz gehien maite duzun eszenarekin, besteak baino gehiago maite duzunarekin. Gehienetan, lekuz kanpo dagoela deskubrituko duzu.
6. Elkarrizketak idazten badituzu, ozenki esan. Horrela bakarrik lortuko dute ahozkotasanaren soinua.



# Elmore Leonard

New Orleansen jaio zen, Louisianan, 1925ean, baina oso umetarik joan zen Detroit hirira bizitzera. Haurtzarotik sentitu izan du, bere esanetan, kirolekiko eta armekiko lilura. Lehena beisboletik datorkio: txikia zenean, Detroiteko Tigers taldea *World Series* txapelketako finalera iritsi zen. Bigarrena, Bonnie eta Clyden historiatic: 1931 eta 1934 artean Amerikako Estatu Batuetako gaizkile bilatuenak izan ziren eta etengabe agertzen ziren komunikabideetan. Leonard idazten hasi zenean –ipuin laburrak, publizitatearen munduan lan egiten zuen bitartean– genero beltzerantz lerratu zen eta horretan aritu da luzaroan. Luzaroan eta modu oparoan, berrogeita hamar bat liburu argitaratu baititu, horietatik 26 zinemarako eta telebistarako egokitu direnak. Detroiteko Dickens deitu izan diote.

Liburu oso bat dauka Elmore Leonardek idazteko arauai buruz, *Elmore Leonard's 10 Rules of Writing*. Tituluak dioen bezala, 10 aholku jasotzen ditu, gero berak liburuaren laburpen gisara titularretan eman zituenak.

## Elmore Leonarden idazteko 10 arauak

1. Ez libururik zabaldu eguraldi atsegina dagoenean.
2. Saihestu hitzaurreak.
3. Ez erabili *esan* ez den aditzik elkarrizketetan aurrera egiteko.
4. Ez erabili aditzondorik *esan* aditza laguntzeko... «esan zuen berak larriki».
5. Kontrolatu zure harridura keinuak. Ezin dituzu erabili bi edo hiru baino gehiago 100.000 hitz bakoitzeko.
6. Ez idatzi *bat-batean ezta orduan etorri zen hondamena* edo antzekorik ere.
7. Erabili lekuko hizkeraren aldaerak, zabar, zabal.
8. Ez eman pertsonaien deskribapen xeherik.
9. Ezta xehetasunez beteriko leku edo objektuen deskribapenik ere.
10. Saiatu irakurleek saltatuko dituzten parteak kanpoan uzten.  
Nire araurik garrantzitsuenak aurreko hamarrak laburbiltzen dituen da.  
Idatzia badirudi, berridatzi.


# Margaret Atwood

Margaret Eleanor Atwood 1939an jaio zen, Kanadan. Booker eta Arthur C. Clarke sarien irabazle izan da eta ehunka kritika, saiakera, ipuin, poema eta narrazio luze idatzi ditu. Ekintzaile politiko moduan ere ezaguna da: tradizio feminista duen familiako kidea da, Kanadako Berdeen laguntzailea, eta bere sorterriko literaturaren eta nortasunaren aldeko lan teoriko eta politiko askoren egilea. Bere lanen artean ezagunenak, *The Handmaid's Tale*, *The Edible Woman* eta *The Cats Eye*.

2010ean *The Guardian* egunkariak hainbat egileri eskatu zien haien idazketa metodoa 10 arau edo aholkutan laburtzeko. Galdeketari erantzunez osatu zuen Margaret Atwoodek dekalogo hau.

Margaret Atwooden idazteko 10 aholku guztiz praktikoak

1. Hegazkinetan idazteko, hartu arkatza. Boligrafoek tinta botatzen dute. Baina arkatza apurtzen bada, ezingo duzu zorrotzu, hegazkinetan ez daitekeelako aiztorik eraman. Eraman bi arkatz, beraz.
2. Bi arkatzak apurtzen badira, nola hala zorrotzu ditza-kezu metalezko edo kristalezko ahoa duen lima bate-kin.
3. Eraman idazteko moduko zerbait. Papera ondo dago. Estu bazabiltza, egur zati batek edo zure besoak balio-ko dizute.
4. Ordenagailua erabiltzen baduzu, gorde testu berriak flash memoria batean.
5. Egin bizkarrerako ariketa fisikoak. Minak arreta gala-razten du.



6. Eutsi irakurlearen arretari (errazagoa izango zaizu zeure arretari eusteko gai bazara). Baina ez dakizu irakurlea nor den, beraz, ilunetan ibiliko zara, tiragomarekin arrainei tiro egiten. A irakurlea liluratuko duenak B irakurlea hezurretaraino aspertuko du.
7. Seguruenik hiztegia beharko duzu, joskera liburu arrunt bat edo beste, eta errealitatearen zentzua. Azken horrek zera esan nahi du: ez dago doako bazkaririk. Idaztea lana da. Apustua ere bada. Ez dago pentsio-planik. Beste pertsona batzuek lagun zaitzaketek, baina, funtsean, bakarrik zaude. Inork ez zaitu idaztera behartzen: zeuk aukeratu duzu, ez zaitetz negartia izan.
8. Inoiz ezingo duzu zure liburua irakurri liburu berri baten lehen orrialdea zabaltzeak dakarren gogo inuxente horrekin. Zeuk idatzi duzulako. Atzean egon zara. Untxiak ikusi dituzu kapelaren barruan sartzen. Beraz, argitalpen munduarekin zerikusia duen inori erakutsi baino lehen, eskatu irakurlea den lagun bati edo biri irakur dezatela. Hobe lagun horrekin harreman erromantikorik ez baduzu. Ez baduzu harremana eten nahi, behintzat.
9. Ez zaitetz basoaren erdian eserita geratu. Argumetuarekin galduta edo blokeatuta bazabiltza, eman atzerapausoak galdu zinen lekuraino. Eta hartu beste bidea. Eta/edo aldatu pertsona. Aldatu denbora. Aldatu lehen orrialdea.
10. Otoi egitea lagungarri izan liteke. Edo beste zerbait irakurtzea. Edo bukatuta, argitaratuta daukazun liburu distiratsuaren Grial Santua etengabe irudikatzea.

# Henry Miller

Henry Valentine Miller 1891n jaio zen, New Yorken, eta fikziozko autobiografiak idatzi zituela esan daiteke, bere bizitzan oinarritzen ziren lanak, filosofia, gizarte-kronika eta bestelakoak nahastuz. Ezagunenak, *Tropic of Cancer* eta *Tropic of Capricorn* (1936 eta 1939). Lehenengoa zentsuratu egin nahi izan zuten AEBetan, lizuna zelakoan, baina, epaiketa historikoan, literatura lana zela erabaki zuten eta, horrenbestez, inprenta askatasunak babestu behar zuela. Idatzi ez ezik, pianoa jotzen zuen eta pintorea ere bazen. Bi museo ditu bere izenean, Japonian bata (Nagano hirian) eta Kaliforniako kostaldean bestea.

*Tropic of Cancer* idatzi zuen sasoian, Millerrek oso programa zorrotza bete zuen, 1932 eta 33 artean. *Henry Miller on Writing* liburuan jaso ziren gero, eta idazleentzat baino gehiago, bere buruarentzat dira aholkuak.

## Hona hemen, Henry Millerren idazteko programa

### GOIZETAN

Durduzatuta bazaude, hartu oharrak eta gorde gero-  
rako, akuilu gisa.

Egoera onean bazaude, idatzi.

### ARRATSALDEETAN

Esku artean duzun zatia landu, parte horretarako  
egindako planari zehatz jarraituz. Etenik gabe, den-  
bora-pasarik gabe. Idatzi aldian-aldian zati bat buka-  
tzeko moduan, behin eta betiko.

### ILUNTZEETAN

Egon lagunekin. Irakurri kafetegietan.

Leku ezezagunak esploratu. Euria bota badu, oinez.  
Bestela, bizikletaz.

Idatzi, umorez bazaude. Baina Bigarren Mailako  
proiektuak. Zuzendu Lan Nagusia\* (\*maiuskulak egi-  
learenak).

*Oharra:* Utzi egunean zehar denbora nahiko museoe-  
tara joateko edo marrazkiren bat zirriborrazteko  
edo bizikletaz paseoa egiteko. Marraztu kafetegietan  
eta trenetan eta kalean. Film gutxiago ikusi! Astean  
behin, liburutegira, bibliografia kontsultatzera.

## Programa horrekin batera gogoan izateko arauak

1. Une bakoitzean, proiektu bakar batean lan egin, buka-  
tu arte.
2. Ez hasi liburu berririk eta ez *Black Springi* beste mate-  
rialik gehitu.

3. Ez zaitez urduri jarri. Lan egin lasai, pozik, ardurarik gabe, esku artean duzun horretan.
4. Jarraitu Programari eta ez gogoari. Erabakitako orduan gelditu!
5. *Sortzeko* gai ez zarenean, bai zara *lan egiteko* gai.
6. Jarri porlan apur bat egunero, beti ongarria botatzen ibili beharrean.
7. Gizaki izaten jarraitu! Egon jendearekin, zoaz lekuetara. Edan, gogo baduzu.
8. Ez zara mandoa! Plazer hutsez idatzi.
9. Behar duzunean, ahaztu Programa. Baina itzuli hurrengo egunean. *Kontzentratu. Estutu begirada. Utzi gauzak kanpoan.*
10. Ahaztu idatzi nahi dituzun liburuak. *Idazten ari zaren* liburuan pentsatu.
11. Idatzi. Beste ezeren gainetik, beti. Pintura, musika, lagunak, zinema... horiek gero datoz.

(Dirudienez, Millerrek bi taldetan banatzen zituen bere lanak. Lan Nagusia une horretan idazten ari zen eleberria litzateke –*Tropic of Cancer*– eta bigarren mailako lanak, berriz, artikuluak, idatzi laburragoak, marrazketa lanak edo bere buruari jarritako agendako lanak, besteak beste, antzerki-lanen bat ikustea, koa-dro bati berniza ematea edo markoa jartzea).





# Neil Gaiman

Fantasiaren eta zientzia-fikzioaren alorrean ingelesez idazten duen egilerik ezagunenetakoa da egun Neil Gaiman. Genero horretan, ingelesez idatzitako lanei ematen zaizkien sari nagusietakoak irabazi ditu, tartean Hugo saria, Nebula saria eta Bram Stoker saria. Estatu Batuetan bizi den arren, Ingalaterran jaio zen, 1960an. Irakurle amorratua izan zen umetan eta idazle oparoa oso gaztetatik. Nobelak, komikiak eta istorio laburrak idatzi ditu. Ezagunenak, *The Sandman* nobela grafikoa, jainkoen arteko gerra garaikide bat imajinatzen duen *American Gods* eleberria eta zinemarako egokituak izan diren *Coraline* eta *Stardust* lan laburragoak.

Neil Gaimanek ere, *The Guardian* egunkariari erantzunez eman zituen idazle hasiberri eta beteranoentzako aholkuak.

## Neil Gaimanen idazteko 8 arauak

1. Idatzi.
2. Jarri hitz bat bestearen atzean. Bilatu hitz egokia, eta idatzi.
3. Bukatu idazten ari zarena. Hori bukatzeko beste ezer amaitu behar baduzu, ba amaitu.
4. Utzi tarte batez. Irakurri inoiz irakurri ez bazenu bezala. Utzi irakurtzen lagun ontzat dituzunei eta idatzi duzunaren antzeko gauzak gustatzen zaizkienei.
5. Gogoratu: zerbait gaizki dagoela edo haientzat ez duela funtzionatzen esaten dizutenek arrazoi dute, ia beti. Gaizki dagoena seinalatzen dizutenean eta nola konpondu esaten dizutenean, erratuta daude, ia beti.
6. Konpondu. Gogoratu, lehenago edo geroago, perfektiora iritsi baino lehen, utzi egin beharko duzula eta beste zerbaitekin hasi. Perfekzioa bilatzea ortzemugarren atzetik joatea da. Jarraitu mugitzen.
7. Egin barre zeure txisteei.
8. Hauxe da idazteko arau nagusia: nahiko segurtasun eta konfiantzaz egiten baduzu, nahi duzuna egin zenezake. Bizitzeko araua ere bada hori, akaso, idazteko arauaz gain. Beraz, idatzi zure istorioa eskatzen duen moduan. Idatzi zintzotasunez, eta ahal duzun hobekien kontatu. Ez dut uste beste araurik dagoenik. Inporta duenik ez, behintzat.

# George Orwell

Indian jaio zen, Eric Arthur Blair izenez, 1903an, India ingeles kolonia zenean. Ingalaterrako izen oneko familia bateko semea zen arren, familiak jada ez zeukan aspaldiko dirutzarik. Hala ere, eskola onetan ikasi zuen, nahiz eta ez zen ikasle moduan bereziki nabarmendu. Ikasketak bukatuta, Indiara abiatu zen berriz, Inperioaren Polizia lanetan. Denborarekin, modu kritikoan ikusiko zuen ingelesek Indian jokatu zuten papera, baina egonaldi hark idazle izateko erabakia hartzeko balio izan zion. Europara itzuli zenean, Parisen eta Londresen ibili zen eta bertako behartsuei buruzko kazetaritza lanak argitaratu zituen. Ezkerreko militantzia politikoak Espainiako Gerra Zibilera eraman zuen, faxismoaren kontrako boluntario. 1984 distopikoa eta totalitarismoaren kontra idatzitako *Animal Farm* sinbolikoa dira bere lan ezagunenak eta *orwellian* edo *orwelltarra* izenlagunari bidea eman ziotenak. 1950ean hil zen, tuberkulosiak jota. Orwell ibaiaren izenez hartua zuen bere lumaizena.



George Orwellen idazteko 6 arauak,  
*Politics and the English language* (1946) saiakeratik hartuak

1. Sekula ez erabili metaforarik, konparaketarik edo han zein hemen sarriegi idatzita aurkitzen duzun bestelako adierazpide arruntik.
2. Ez erabili hitz luzerik laburrak balio duen lekuan.
3. Hitz bat ken daitekeenean, kendu. Beti.
4. Ez erabili subjektu pasiboa, aktiboa erabil daitekeenean.
5. Sekula ez erabili esamolde arrotz bat, hitz zientifiko bat edo argota, egunero erabiltzen den hitz arrunt bat existitzen bada.
6. Basakeriaren bat esan baino lehen, hautsi arau horietako edozein.

# David Ogilvy

*Mad Men* telesaila lan historikoa balitz, David Ogilvy Don Draper litzateke. *Times* aldizkariaren esaldi batek bilakatu zuen mito, 1962an. «Publizitatearen munduan gehien bilatzen den aztia da», esan zuen aldizkari ezagunak eta, orduetik, Publizitatearen Aita esan zaio Ogilvyri. Marketinaren alorrean asko idatzi eta hausnartu zuen eta *Confessions of an Advertising Man* zein *Ogilvy on Advertising* irakurri beharrekoak jotzen dira publizitatean interesa duen edonorentzat.

David Ogilvyk bere agentziako langileei 1982an bidali zien idatzia, *How to Write* izeneko. Publizitatean interesa dutenentzat, edo ez

Zenbat eta hobeto idatzi, hainbat eta gorago iritsiko zara Ogilvy & Mather-en. Ondo pentsatzen duen jendeak ondo idazten du.

Buru nahasia duen jendeak txosten nahasiak idazten ditu, eskutitz nahasiak eta hitzaldi nahasiak.

Ondo idaztea ez da berezko dohaina. Ondo idazten ikasi egin behar duzu. Hona hemen 10 argibide:

1. Irakurri Roman eta Raphaelsonen idazteari buruz egin zuten liburua. Irakurri hiru aldiz\*.
2. Idatzi hitz egiten duzun moduan. Natural.
3. Erabili hitz laburrak, esaldi laburrak eta ahapaldi laburrak.
4. Sekula ez erabili *birkontzeptualizazioa*, *desmasifikatzea*, *jarrerakortasuna* edo *epaikidetza* moduko mordoiloak. Kirten handinahien bereizgarri dira.
5. Gaia edozein dela, ez inoiz bi orrialde baino gehiago idatzi.
6. Aipuak egiaztatu.
7. Ez bidali inoiz eskutitz bat edo txosten bat idatzi duzun egunean bertan. Irakurri ozenki hurrengo goizean. Eta zuzendu.
8. Garrantzitsua bada, eskatu lankide bati hobetu dezala.
9. Zure eskutitz edo txosten hori bidali baino lehen, ziurtatu jasoko duenari esan diozula argi baino argiago zer egin behar duen.
10. AKZIOA nahi baduzu, ez idatzi. Zoaz eta esan tipoari zer nahi duzun.

\*Ogilvyk buruan duen liburuaren izena *Writing that Works; How to Communicate Effectively in Business* deitzen da, Kenneth Roman eta Joel Raphaelson egileena.



# Mark Twain

Samuel Langhorne Clemens izenez jaio zen, 1835ean, baina *Mark Twain* izenez egin zen ezagun umorista eta idazle moduan. Bi dira haren nobela ezagunenak, biak garai bateko giro eta bizimodua laburtzeko gai izan zirelako gogoratuak: *The Adventures of Tom Sawyer* (1876) eta *Adventures of Huckleberry Finn* (1885). Idazle arrakastatsua izan zen bere sasoiaren eta leku handia du ingelesez idatzitako literaturan; William Faulknerrek, adibidez, «amerikar literaturaren aita» deitu zion. Halley kometa Lurretik ikusgarri zenean jaio zen eta halaxe hilko zela esan ohi zuen. Baita asmatu ere, ia-ia: kometak lurra bisitatu eta hurrengo egunean zendu zen.

1895ean Mark Twainek saiakera satiriko bat argitaratu zuen, *Fenimore Cooper's Literary Offenses* izenekoa. Fenimore Cooper garai hartako idazle bat zen, eta haren lanak hartu eta bertan ageri ziren literatura topikoak, esamolde zatarrak, pertsonaia lauk eta bestelakoak zorrotz kritikatu zituen. Literaturari buruz bertan esaten dituenak klasikotzat jotzen dira egun, nahiz eta XIX. mendean idatziak izan.

## Mark Twainen idazteko aholkuak

1. Narrazio batek zerbait erdietsi behar du eta nonbaite-ra iritsi.
2. Narrazio baten atalak narrazioaren beharrezko atalak izango dira, eta haren bilakaeran lagunduko dute.
3. Narrazio bateko pertsonaiak bizirik egongo dira, hildakoak ez badira, eta irakurleak beti izan beharko du gai hildakoak eta besteak bereizteko.
4. Narrazio bateko pertsonaiak, bizidunak zein hildakoak, bertan egoteko nahikoa arrazoi erakutsi beharko dute.
5. Narrazio bateko pertsonaiek haien artean hitz egiten dutenean, hizkerak giza hizkeraren soinua izan beharko du, eta antzeko egoera batean gizakiek hitz egingo luketen moduan esanda egon beharko du, eta helburu jakina ere eduki beharko du, eta nabarmentasuna frogatu beharko du, eta hautaturiko gaiaren auzokide-edo izan beharko du, eta irakurlearentzat interesa izan beharko du eta narrazioari lagundu egin beharko dio eta bukatu egin beharko du jendeari beste zeresanik bururatzen ez zaionean.
6. Egileak pertsonaia baten izaera deskribatzen duenean, pertsonaia horren jarduteko eta hitz egiteko moduak deskribapen hori justifikatu beharko dute.
7. Paragrafo baten hasieran pertsonaia batek ilustraturiko, urregorritz brodaturiko eta eskuz egindako literatura antologia garesti baten antzera hitz egiten badu, paragrafo horren bukaeran ez du hitz egin behar komediantek baten antzera.
8. Irakurleari ez zaio ergelkeria zatarrekin azpijokorik egingo, ez egileak berak ezta pertsonaiek ere.
9. Narrazio bateko pertsonaiek litekeena egiten dute eta mirariak ahaztu egiten dituzte; edo mirariak egite-

ra ausartzen badira, egileak deskribapen sinesgarria eskaini beharko du, mirariak posible eta arrazoizko egingo dituen.

10. Egilearen betebeharra da irakurleak narrazioko pertsonaiekiko eta haien patuarekiko interes bizia senti dezala; eta, era berean, zintzoak maite eta gaizkileak gorroto ditzala.
11. Narrazio bateko pertsonaiak hain egon behar dira zehatz deskribatuak, irakurleak berehala jakingo du zer egingo lukeen bakoitzak larrialdi batean.
12. Egile batek esan nahi duena esan beharko luke, ez soilik esan nahi duenera hurbildu.
13. Erabili hitz egokia, ez bere urruneko ahaideren bat.
14. Saihestu hitzontzikeriak.
15. Ez utzi kanpoan xehetasun esanguratsurik.
16. Ez egin formarekin zabarkeriarik.
17. Joskera zuzena zaindu.
18. Erabili estilo laua eta soila.